

II. UDALAREN KUDEAKETA-MEMORIA

GOBERNU-ORGANOAK

1. UDALBATZAREN OSOKO BILKURA

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura alkateaz eta 26 zinegotzi hautetsiez osatua dago. Alkatea da bilkura-burua. Ohiko osoko bilkurak hil bakoitzaren lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean hasita, eta hil bakoitzaren hirugarren ostiralean, 9:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten.

2016an, 15 bilkura egin ziren. Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira (www.pamplona.es), eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago.

Bilkurak	2012	2013	2014	2015	2016
Ohikoak	15	12	17	9	11
Bereziak	3	7	1	8	4
Eratzaileak	-	-	-	1	-
GUZTIRA	18	19	18	18	15
Hartutako erabakiak	247	241	189	168	163

2. ALKATETZA

Alkatea da udalburua. Udal-gobernua eta -administrazioa zuzentzeko ardura du, bai eta Udalaren ordezkari aritzekoa eta Udalbatzaren osoko bilkuretarako zein Tokiko Gobernu Batzarraren eta kide anitzeko beste edozein organoren bileretarako deia egin eta haietan buru jardutekoa ere. Bere aldetik, Alkatetza Kabinetea, Protokolo-zerbitzua barne hartzen duena, besteak beste erakundeekiko eta kanpoko harremanez arduratzen da, bai eta kanpora begirako jarduketak koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz, hiriko ekitaldi ofizial eta oroitzapenezkoen zuzendaritzaz eta Iruñeko Udalaren eta hiri senidetuen arteko harremanen sustapenaz ere.

	2012	2013	2014	2015	2016
--	------	------	------	------	------

Ebazpenak	1.104	1.104	906	889	821
Dekretuak eta xedapenak	50	36	37	58	49
Bandoak	1	1	1	1	1
GUZTIRA	1.156	1.141	944	948	871

3. GOBERNU BATZARRA

Tokiko Gobernu Batzarrak astearte goizetan egiten du ohiko bilkura. Alkatea da burua, baina horrek beste kide bat eskuordetu dezake presidentziarako, eta zazpi zinegotzi ordezkariak dira Gobernu batzarkide. Horrela legeak agindutakoa betetzen da; izan ere, legearekin bat gehienez ere zinegotzi guztien herenak osa dezake Tokiko Gobernu Batzarra, alkateaz gainera (Iruñean 27 zinegotzi dira). 2016an, Tokiko Gobernu Batzarrak 76 bilera egin zituen. Haietan, 552 erabaki hartu ziren.

	2012	2013	2014	2015	2016
Ohiko bilkurak	45	44	47	44	46
Bilkura bereziak	-	1	-	1	-
Presako bilkura bereziak	23	27	24	27	30
GUZTIRA	68	72	71	72	76
Hartutako erabakiak	442	467	511	584	552

Tokiko Gobernu Batzarra izan da Iruñeko Udaleko kide anitzeko organoen artean lehena espediente guztiak elektronikoki bideratzean. 2014tik, Batzar horretako kide diren zinegotziek aldeztu aurretik kontsulta ditzakete, elektronikoki, Udal-espedienteen Kudeatzailearen bitartez, batzarrean eztabaidatuko diren edukiak. Halaber, udal-batzorde informatiboak ere digitalizatu ziren: "Lehendakaritza", "Herritaren Aferak", "Hirigintza", "Irakokizunak eta Erreklamazioak" (bi hilabete behin), "Kontuak" (sei hilabete behin) eta "Kontratazioak zaintzekoa" (hiru hilabete behin).

4. ZINEGOTZI ORDEZKARIAK

Indarrean dagoen legeriaren arabera, alkateak zinegotzi ordezkariak eskuordetzen ahal ditu, berezko dituen hainbat eskumenetarako. Alkateak, era berean, zinegotzi bereziak izendatzen ahal ditu, Toki Entitateen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduan aurreikusitako arautzearekin bat.

Zinegotzi ordezkariak eskuordetza-xedapenean aurreikusten diren eskumenak eskuratuko dituzte, edo berariaz eskuordetu ezean, alor bakoitzaren gaien barruan ahalmen, eskubide eta betebeharrak ororen jabe bilakatuko dira, alkatearen eskumenekoak eta eskuordetzan emateko modukoak izaki eskuordetzan hartutako aferetan. Iruñeko Udalak zazpi zinegotzi ordezkari, zinegotzi berezi bat eta zortzi kudeaketa-alor ditu: Gobernu Gardena (ezin da eskuordetu, eta alkateak kudeatzen du zuzenean); Tokiko Ekonomia Jasangarria; Gizarte Ekintza eta Komunitate Garapena; Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gizarte Ahalduntzea; Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola; Hiri Bizigarria eta Etxebizitza; eta Hiri Ekologia eta Mugikortasuna.

Urteko lehen seihilekoan zehar, aurreko legislaturan, zazpi zinegotzi ordezkari eta zortzi kudeaketa-alor zituen Udalak, irailean udal-antolamendu berria eratu bitartean: Zerbitzu Orokorrak; Hezkuntza eta Kultura; Herritarren Segurtasuna; Enplegua, Merkataritza eta Turismoa; Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirola; Proiektuak eta Hiri Kontserbazioa; Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena; eta Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna.

Ebazpenak	
Gobernu Gardena	1.390
Gizarte Ekintza eta Komunitate Garapena	554
Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza	2.560
Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola	1.180
Hiri Bizigarria eta Etxebizitza	1.990
Tokiko Ekonomia Jasangarria	344
Hiri Ekologia eta Mugikortasuna	944
Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gizarte Ahalduntzea	275
GUZTIRA	9.237